TAYLOR JENKINS REID
EVELYN HUGOREN ZAZPI SENARRAK
ITZULPENA: IBAI SARASUA
narratiba
erein

n a r r a t i b a ● 157

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko maiatzean

Jatorrizko izenburua:
The Seven Husbands of Evelyn Hugo
Azala, liburuaren diseinua eta maketazioa:
A. Beltza | Erein
Itzulpena:
Ibai Sarasua
© 2017 by Rabbit Reid, Inc.
Itzulpen-eskubideak, Taryn Fagerness Agency eta Sandra Bruna Agencia Literaria-k hitzartuak.
Eskubide guztiak erreserbatuta.
© Edizio honena: Erein argitaletxea. Donostia 2025
ISBN: 978-84-1093-005-6
L.G.: D 464-2025
EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus
Inprimatzailea: Ulzama
Altzutzate kalea, 51
31620 Huarte, Nafarroa
T 948 332 808
contacto@ulzama.com
www.ulzama.com

Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

TAYLOR JENKINS REID

EVELYN HUGOREN ZAZPI SENARRAK

ITZULPENA: IBAI SARASUA

erein

Lilahrentzat
Jo eta txikitu patriarkatua, maitea

ITZULTZAILEAREN OHARRA

Ingelesez eman dira liburuan zehar agertzen diren filmen izenburuak. Hemen zerrendatu ditugu beren euskarazko ordainarekin.

Next Door	Alboz albo
Father and Daughter	Aita-alabak
Little Women	Emakumetxoak
Big Trouble	Arazo latza
One More Day	Egun bat gehiago
The Gun at Point Dume	Point Dumeko pistola
The People of Montgomery County	Montgomery Countyko jendea
The Pride of Belgium	Belgikako harrotasuna
The Righteous	Ondraduak
The Time Before	Aurreko aldia
The Night Hunter	Gaueko ehiztaria
Carolina Sunset	Ilunabarra Carolinan
The Dangerous Flight	Hegaldi arriskutsua
Our Men	Gure gizonak
Jade Diamond	Jadezko diamantea
The Buyer	Eroslea
Three A.M.	Goizaldeko hirurak
Promise Me	Hitzemadazu
All for Us	Gugatik dena
Theresa's Wisdom	Theresaren jakinduria
To Be with You	Zurekin egotea

NEW YORK TRIBUNE

Evelyn Hugok enkantean salduko ditu hainbat soineko

PRIYA AMRIT **2017ko martxoaren 2a**

Filmetako izar eta 60ko hamarkadako *It Girl* Evelyn Hugok iragarri berri du enkantean salduko dituela bere soineko oroigarrienetako hamabi, Christie's-en, bularreko minbiziaren gaineko ikerketarako dirua biltzeko.

Glamour eta dotorezia ikono bat izan da aspalditik Hugo, 79 urtekoa. Ezaguna da haren estilo pertsonal sentsual bezain eratsuagatik, eta Hugoren look ezagunenak modaren eta Hollywoodeko historiako mugarritzat jo izan dira.

Hugoren historiaren zatitxo bat nahi duen orori piztuko diote jakin-mina hala soinekoek berek nola jantzi zitueneko testuinguruak. Sortan egongo dira, besteak beste, Hugok Akademiaren 1959ko sarietan jantzi zuen Miranda La Conda esmeralda-berdea, 1962an *Anna Karenina*ren estreinaldian zeraman soufflé eta organdizko lepo biribileko soinekoa eta zeta urdin iluneko Michel Maddax-a, 1982an *All for Us* filmagatik Oscarra irabazi zuenean jantzita zeramana.

Hugo Hollywoodeko eskandalu askotxoren erdigunean izan dugu, batez ere zazpi aldiz egon zelako ezkonduta, Harry Cameron ekoizlearekin hainbat hamarkadaz izandako harremana barne. Bi hollywoodtar hauek alaba bat zuten elkarrekin, Connor Cameron, ezbairik gabe enkante honen inspiragarri dena, iaz zendu baitzen bularreko minbiziak jota, 41 urte bete berri.

Kubako etorkinen alaba zen Hugo, Evelyn Elena Herrera izenez jaioa 1938an, eta Hell's Kitchen auzoan hazi zen, New York hirian. 1995erako Hollywoodera iritsia zen, ilea horiz tindatua zuen, eta Evelyn Hugo izena hartua. Ia-ia egun batetik bestera, Hollywoodeko eliteko kide bihurtu zen Hugo. Fokuen argitan egon zen hiru hamarkadaz baino gehiagoz, harik eta 80ko hamarkada bukaeran erretiratu eta Robert Jamison finantzariarekin ezkondu zen arte, hau da, hiru Oscar eskuratutako Celia St. James aktorearen neba nagusiarekin. Orain, zazpigarren senarraren alargun, Manhattanen bizi da.

Hugo ezin ederragoak, glamour eta sexualitate desafiatzailearen eredu hark, aspalditik liluratu ditu zinemazaleak. Espero da enkante honek 2 milioi euroko langa gaindituko duela.

—Etor zaitezke nire bulegora?

Ingurura begiratu dut, alboko mahaietara, eta atzera ere Frankieri, zehazki nori ari zaion baieztatu nahian. Neure burua seinalatu dut.

—Nirekin ari zara?

Oso egonarri gutxikoa da Frankie.

—Bai, Monique, zurekin. Horregatik esan dut «Monique, etor zaitezke nire bulegora?».

—Barkatu, azken zatia bakarrik entzun dut.

Frankie biratu egin da. Koadernoa hartu eta atzetik joan natzaio.

Frankiek badu zerbait oso harrigarria. Ez dakit ohiko eran erakargarria denik esango nukeen, hazpegi zorrotzak baititu, eta oso bananduak begiak; baina, dena den, ezin zaio begiratzeari eta miresteari eutsi. Metro eta laurogeiko bere egitura argal, bere ile afro labur moztu eta kolore bizien eta bitxi handien zaletasun eta guzti, den-denak ohartzen dira Frankie gelara sartu dela.

Bera da nik lan hau hartu izanaren arrazoietako bat. Kazetaritza-fakultatean nengoenetik miretsi izan dut, haren artikuluak irakurtzen bainituen orain berak zuzentzen duen eta lanean naukan aldizkari honen orrialdeetan bertan. Zintzoa izateko, oso inspiragarria da emakume beltz bat gauzak gobernatzen aritzea. Ni neu arraza biko emakumea izaki –azal marroi argia eta begi marroi ilunak, aita beltzaren opari; eta ugariak aurpegiko orinak, ama zuriaren opari–, nik ere noizbait zerbait gobernatzera hel naitekeela ziurrago sentitzen dut Frankieri esker.

—Eseri –esan du Frankiek, bera jarri eta metakrilatozko mahaiaren beste aldeko aulki laranjarantz keinua egin bitartean.

Lasai-lasai eseri naiz eta zangoak gurutzatu ditut. Frankieri utzi diot lehen hitza egiten.

—Tira, gertakari bitxi bat daukagu esku artean –esan du, ordenagailuari begira–. Evelyn Hugoren jendea erreportaje berezi baten eske etorri zaigu. Elkarrizketa esklusibo bat.

Senak diost «Bai zera!» esateko, baina «Zergatik ari zara hau niri kontatzen?» ere bai.

—Zeri buruzkoa, zehazki? –galdetu dut.

—Nik uste egin behar duen soinekoen enkanteari lotuta egongo dela –esan du Frankiek–. Itxura denez, oso garrantzitsua da harentzat Bularreko Minbiziaren aurkako Fundazioarentzat ahalik eta diru gehien biltzea.

—Baina ez dizute baieztatu?

Burua astindu du Frankiek.

—Evelynek zerbait esan nahi duela besterik ez.

Evelyn Hugo inoizko zinema-izar handienetako bat da. Jendeak entzun diezaion, ez du zer esan eduki beharrik ere.

—Egundokoa izan daiteke hau guretzat, ezta? Hau da, mito bizia da. Ez al zen zortzi bider ezkondu, edo horrelako zerbait?

—Zazpi bider –zehaztu du Frankiek–. Eta, bai. Sekulakoa izan daiteke. Horregatik espero dut afera honen bigarren zatia kontatu bitartean pazientzia izatea.

—Zer esan nahi duzu?

Frankiek arnasa sakon hartu du, eta ni kaleratzear dagoela pentsarazten didan itxura hartu dio aurpegiak. Baina, orduan, esan du:

—Zuk egin dezazun eskatu du Evelynek, berariaz.

—Nik?

Bost minutuan bigarren aldiz harritu nau norbaitek nirekin hitz egin nahiak. Neure buruarekiko konfiantza landu beharra daukat. Esan dezagun azken aldian jipoialdia jasotakoa dela. Inoiz bikaina izan denik ere ezin esan, dena den.

—Egia esan, horixe izan zen nire erreakzioa ere –esan du Frankiek.

Orain, egia esan, apur bat mindu naiz. Dena den, badakit, noski, nondik datorren kontua. Urtebete baino gutxiago daramat *Vivant*en, jendeari koipe emateko artikuluak egiten, gehienbat. Lehen *Discourse* blogean idazten nuen, bere burua aldizkaritzat duen ekitaldi- eta kultura-webgune batean, zeina egiatan ez baita lerroburu sentsazionalistako blog bat baizik. Bizimolde Modernoa atalean idazten nuen, batez ere, eta boladako gaiak eta iritzi-artikuluak lantzen nituen.

Hainbat urtez neure kasa aritu ostean, salbatu egin ninduen *Discourse*ren kontu horrek, baina *Vivant*ek lana eskaini zidanean, ezin izan nion neure buruari eutsi. Brastakoan onartu nuen halako instituzio batean sartzeko aukera, mito artean lan egitekoa.

Lehen lanegunean, kultura irauli zuten azal ikonikoz apaindutako hormen paretik pasatu nintzen: emakumeen aldeko aktibista Debbie Palmer biluzi eta tentuz paratuarena, etxe orratz baten zabaltzan, 1984an Manhattani begira; mihise bat margotzen ari den Robert Turner artistarena, 1991an hiesa zuela jakinarazi zuenekoa. Surrealista iruditzen zitzaidan ni *Vivant*en munduaren parte izatea, betidanik ikusi nahi izan bainuen neure izena haren orrialde satinatuetan.

Tamalez, ordea, azken hamabi zenbakietan ez dut aspaldiko dirudunei galdera zaharkituak besterik egin, *Discourse*ko nire lankide ohiek mundua aldatzen saiatu eta biral egiten ziren bitartean. Hortaz, erraz esanda, ez nago neure buruarekin oso pozik.

—Begira, kontua ez da ez zaitugula gustuko. Maite zaitugu –esan du Frankiek–. Uste dugu *Vivant*en oso urrunera helduko zarela, baina esperientzia handiagoko idazle bat jartzeko esperantza neukan. Eta erabat zintzoa izan nahi dut zurekin: Evelynen taldeari ez genion zure izena proposatu. Bost izen handi bilatu genituen, eta hau bidali ziguten bueltan.

Frankiek ordenagailua nigana itzuli du eta mezu elektroniko bat erakutsi dit, Thomas Welch delako batena; Evelyn Hugoren publizista izango dela pentsatu dut.

Igorlea: Thomas Welch
Hartzailea: Troupe, Frankie
Cc: Stamey, Jason; Powers, Ryan

Edo Monique Grant, edo Evelynek kale.

Frankieri begiratu diot berriz, zur eta lur, eta, egia esateko, Evelyn Hugok nigandik zerbait nahi duelako apur bat liluratuta.

—Zuk Evelyn Hugo ezagutzen duzu? Hori da kontua? –galdetu dit Frankiek, ordenagailua berriz ere mahaiaren bere aldera itzulita.

—Ez –esan dut, galderak berak harrituta–. Haren filmetako batzuk ikusi ditut, baina nire garaia baino apur bat lehenagokoa da.

—Ez duzu harekin lotura pertsonalik?

Burua astindu dut.

—Inondik ere ez.

—Ez al zara Los Angelesekoa?

—Bai, baina Evelyn Hugorekin loturaren bat izateko modu bakarra izango litzateke, nik uste, aitak bere garaian haren filmen batean lan egin izana. Argazki finkoak egiten zituen film-platoetan. Amari galde diezaioket.

—Oso ondo. Eskerrik asko. –Frankiek zain-zain begiratu dit.

—Orain galdetzea nahi duzu?

—Posible duzu?

Telefonoa atera dut patrikatik eta amari idatzi diot: «Aitak inoiz lan egin al du Evelyn Hugoren filmen batean?».

Hiru puntu agertzen ikusi ditut, gora begiratu dut, eta hantxe topatu dut Frankie nire telefonoa begi-zeharka ikusi nahian. Inbasioaz konturatu dela dirudi, eta atzera egin du.

Telefonoak tilin egin du.

Amak zera idatzi du: «Agian? Hainbeste izan ziren, zaila da guztiak buruan izatea. Zergatik?».

«Luzea da kontatzen –erantzun dut–, baina asmatu nahian nabil Evelyn Hugorekin loturarik badudan. Zuk uste aitak ezagutuko zuela?».

Amak erantzun du: «Bai, zera! Ez. Aita inoiz ez zen platoan ospetsu batekin ere egoten. Nik neuk lagun ospetsuren bat lor zezan eginahalak eginda ere».

Barre egin dut.

—Badirudi ezetz. Loturarik ez Evelyn Hugorekin.

Frankiek baietz egin du buruarekin.

—Ados, tira, orduan beste teoria da bere jendeak influentzia gutxiagoko norbait aukeratu duela, zu kontrolatzeko eta, ondorioz, baita kontakizuna ere.

Telefonoa bibratzen sumatu dut berriz. «Gogora ekarri dit zure aitaren lan zaharren kutxa bat bidali nahi nizula. Lan zoragarriak dira. Oso gustuko dut hemen edukitzea, baina uste dut gustukoago izango duzula zuk. Aste honetan bidaliko dut».

—Ahulena baliatu nahi dutela uste duzu –esan diot Frankieri.

Frankiek irribarre egin du, leun.

—Horrelako zerbait.

—Beraz, Evelynen jendeak argitalpen-informazioa begiratu du, nire izena topatu du idazle xeheen artean eta nahieran manipulatu nazakeela pentsatu du. Hori al da?

—Hala uste dut, tamalez.

—Eta zergatik kontatu didazu hau…?

Frankie zer esan pentsatzen ari da.

—Ez dudalako uste nahieran manipulatu zaitzaketenik. Uste dut zu gutxiesten ari direla. Eta azal hau nahi dut. Titularrak nahi ditut.

—Zer esan nahi duzu? –galdetu dut, aulkian jarrera pitin bat aldatuta.

Frankiek txalo egin du, mahai gainean jarri ditu eskuak, eta nigana makurtu da.

—Evelyn Hugorekin aurrez aurre jartzeko ausardiarik baduzun galdetzen ari naiz.

Gaur inork eskatuko zidala espero nuen gauza guztien artean, bederatzi milioigarrena-edo beharko zuen honek. Evelyn Hugorekin aurrez aurre jartzeko ausardiarik ba al dut? Arrastorik ere ez.

—Bai –bota dut, azkenik.

—Hori besterik ez? Bai, eta kito?

Aukera hau nahi dut. Istorio hau idatzi nahi dut. Nazka-nazka eginda nago beti hutsaren hurrengoa izateaz. Zerbaitetan irabazi beharra daukat, arraioa.

—Bai, ostia?

Baietz egin du Frankiek, hausnarrean.

—Hobeto, baina oraindik ez nau konbentzitzen.

Hogeita hamabost urte ditut. Idazlea izan naiz hamar urte baino gehiago. Libururen baterako tratu bat nahiko nuke noizbait. Neure istorioak aukeratu nahi ditut. Evelyn Hugoren tankerako batek deitzean zoratuta bilatzen duten izena izan nahi dut. Gutxiegi narabilte *Vivant*en. Heldu nahi dudan lekura iritsiko banaiz, zerbaitek hobera egin beharra dauka. Norbaitek nire paretik kendu behar du. Eta azkar, gainera, nire karrera madarikatu hau baita honezkero daukadan gauza bakarra. Gauzak alda daitezen nahi badut, gauzak egiteko modua aldatu behar dut. Eta goitik behera, ziurrenik.

—Evelynek ni nahi nau –esan dut–. Zuk Evelyn nahi duzu. Ez dirudi konbentzitu behar zaitudanik, Frankie. Badirudi zuk *ni* konbentzitu behar nauzula.

Frankie isil-isilik gelditu da, elkartutako hatz punten gainetik niri beha. Azkarrarena egitean huts egin dut, akaso.

Pisuekin entrenatzen saiatu eta hogei kilokoekin hasi nintzenean bezalaxe sentitu naiz. Gehiegi eta goizegi, zertan zabiltzan ez dakizula ageri.

Barrenei eutsi behar izan diet esandakoa ez erretiratzeko, barkamena mesedez eta arren ez eskatzeko. Amak gizabidetsua izateko hezi ninduen, fina izateko. Luzaroan aritu naiz gizalegea otzantasuna delakoan, baina halako adeitasunak ez nau oso urrunera eraman. Munduak hura gobernatzen beharko luketela uste dutenak errespetatzen ditu. Inoiz ez dut ulertu, baina aspertu naiz kontra egiten. Noizbait Frankie izateko nago hemen, Frankie baino gehiago ere bai, agian. Harro egoteko moduko lan handia eta garrantzitsua egiteko. Arrastoa uzteko. Eta hortik ondo urrun nago oraindik ere.

Hain luzea da isiltasuna, amore eman behar dudalakoan nago, tentsioak gora egiten duelako igarotako segundo bakoitzean, baina Frankiek aurretik eman du amore.

—Ondo da –esan du, eta eskua luzatu du zutitzean.

Harridura eta harrotasun bizi-bizia dabilzkit gorputzean neurea luzatzearekin batera. Bostekoa irmoa izateaz arduratu naiz; tornuzil batenaren parekoa da Frankierena.

—Biribila izan dadila, Monique. Zugatik eta gugatik, mesedez.

—Halaxe egingo dut.

Elkarrengatik urruntzen gara atera joaterakoan.

—Baliteke *Discourse*n idatzi zenuen artikulua irakurri izana, sendagileak lagundutako suizidioari buruzkoa –iradoki dit Frankiek ni gelatik irten aurretik.

—Zer?

—Bikaina zen. Agian horregatik nahi zaitu. Horregatik topatu zintugun. Istorio aparta da. Ez soilik jaso zituen bisitengatik, baita zugatik ere, lan ederra delako.

Nahi nuelako idatzi nuen benetako istorio esanguratsuetan, lehenengotariko bat izan zen. Mikrobarazkien gorakadari buruzko artikulu bat agindu eta gutxira idatzi nuen. Park Slope merkatura joan nintzen bertako nekazari bat elkarrizketatzeko, baina aitortu nionean ziape-hostoen xarma ez nuela ulertzen, esan zidan bere arreba ematen nuela. Oso haragijalea izana omen zen, aurreko urtera arte, orduan dieta begano eta guztiz organikora aldatu baitzen, burmuineko minbiziaren kontra borroka egiteko.

Berriketaldian aipatu zidan bera eta arreba sartuak zirela medikuntzak lagundutako suizidioaren gaineko laguntza-talde batean, biziaren amaieran dauden eta haien ahaideei bideratuta. Taldean, duintasunez hiltzeko eskubidearengatik borrokan zebiltzan asko eta asko zeuden. Osasungarri jateak ez zuen arrebaren bizitza salbatuko, eta haietako inork ez zuen behar baino luzaroago sufritzerik nahi.

Orduan jakin nuen laguntza-taldekoei bene-benetan eman nahi niela ahotsa.

*Discourse*ko bulegora itzuli nintzen eta istorioa aurkeztu nuen. Baztertu egingo zidatela pentsatu nuen, joera hipsterrei buruzko artikuluen eta famatuen inguruko iritzi-artikuluen nire azken aldiko sorta ikusita. Eta hara non eman zidaten baiezkoa.

Jo eta su jardun nintzen, bileretara joan nintzen eliza-sotoetan, kideak elkarrizketatu nituen, idatzi eta berridatzi aritu nintzen, harik eta benetan sentitu nuen arte artikuluak islatzen zituela sufritzen ari zen jendearen bizitza, amaitzen laguntzearen errukia eta kode morala, haien konplexutasun osoa.

Artikulu horretaz nago harroen. Behin baino gehiagotan berrirakurri dut egun osoan hemen lanean eman eta etxeratutakoan, neure buruari zertarako gai naizen gogorarazteko, neure buruari gogorarazten zer nolako poza ematen didan egia zabaltzeak, irensteko zaila bada ere.

—Mila esker –esan diot Frankieri orain.

—Talentua duzula, ez diot besterik. Hori da agian.

—Ziurrenik ez.

—Ez –esan du–. Ziurrenik ez, baina idatzi istorioa ondo, edozer dela ere, eta hurrengoan, bai, izango da.

Evelyn Hugoren aitorpena

JULIA SANTOS **2017ko martxoaren 4a**

Zurrumurruek diote Evelyn Hugo sirenak/ MITO BIZIAK/ munduko ilehoririk ederrenak zenbait soineko enkantean salduko dituela eta elkarrizketa bat egitea onartu duela, hainbat hamarkadatan ez bezala.

FABOREZ esan behingoz prest dagoela senar ditxosozko horiei guztiei buruz hitz egiteko. (Lau, ulertu dezaket, agian bost ere bai, sei ozta-ozta, baina zazpi? Zazpi senar? Eta ez ahaztu denok dakigula 80ko hamarkada hasieran Jack Easton kongresukidearekin afera bat izan zuela. Neska honek bai jakin).

Senarrena azalduko ez badu, espero dezagun, otoi, bekain horiek nola lortu dituen esanda uztea. Mesedez, JAKINDURIA PARTEKATU, EVELYN.

Evelynen aspaldiko argazkiak ikusiz gero, eta haren ile beilegi letoi koloreko hura, bekainak geziak bezain zuzenak eta ilunak, azal ondo beltzarandua eta begi marroi urrekara horiek, esku artean daukazuna utzi eta begira gelditu beste aukerarik ez duzu.

Eta gorputza, zer esanik ez.

Ipurdirik ez, aldakarik ez… Titi erraldoiak egitura argal batean, besterik ez.

Heldua naizenetik horrelako gorputz bat lortzeko entrenatzen aritu naiz (Oharra: Oso-oso urruti nago hortik.

Aste honetan egunero jaten aritu naizen *bucatini* spagghetiengatik izango da agian).

Gauza bakar batek ateratzen nau neure onetik: Evelynek edonor hauta zezakeen hau egiteko (ejem, ni?), baina *Vivant*eko hasiberri bat aukeratu du? Edonor lor zezakeen (ejem, ni?). Zergatik beste Monique Grant delako hori (eta ez ni)?

Pf, ondo da. Erretxinduta nago ni ez nautelako hautatu, ez besterik.

Benetan *Vivant*en lortu beharko dut lana. Hantxe jasotzen dituzte kontu mardulenak.

IRUZKINAK:

Apakaixo565-ek dio: Vivantekoek ere ez dute Vivantentzat lanean jarraitu nahi. Jauntxo korporatiboak, iragarleak limurtzeko kaka zentsuratua argitaratzen.

Pppppppppps-ek Apakaixo565-i erantzun: Bai, tira. Herrialdeko aldizkaririk errespetatuenak eta sofistikatuenak lana eskainiko balizu, onartu egingo zenukeelakoan nago.

EChristine999-k dio: Ez al zen Evelynen alaba orain gutxi minbiziak jota hil? Horrelako zerbait irakurri nuelakoan nago. Bai tamalgarria. Bide batez, bada, ba, Evelynen argazki hura, Harry Cameronen hilobikoa? Zenbait hilabetez jota utzi ninduen. Familia ederra zen. Benetan tristea haiek galdu izana.

MrsJeanineGrambs-ek dio: Evelyn Hugok, BOST AXOLA. UTZI JENDE HONI BURUZ IDAZTEARI. Haren ezkontzek, aferek eta filmik gehienek gauza bakar bat frogatzen dute: puta galanta. Three A.M. lotsagarria izan zen emakumeontzat. Jarri arreta merezi dutenengan.

SexyLexi89-k dio: Evelyn Hugo inoizko emakumerik ederrena da agian. Gogoratzen Boute-en-traineko plano hori, uretatik biluzik irteten ari dena eta justu-justuan titiburuak ikusi aurretik beltzera egiten duena? Sekulakoa.

PennyDriverKLM-k dio: Gora Evelyn Hugo, ile horia eta bekain ilunak LOOK ONENA bihurtzeagatik! Evelyn, biba zu.

ZerriYuppie3-k dio: Argalegia! Ez niretzako modukoa.

EvelynHugoSantuHutsa-k dio: Emakume honek MILIOIKA DOLAR eman dizkie tratu txarrak jasan dituzten emakumeen elkarteei eta LGTBQ+ kausari, orain soinekoak enkantean salduko ditu minbizia ikertzeko, eta hala ere haren bekain-jokoaz baino ez duzue hitz egiten? Benetan?

JuliaSantos@TheSpill-ek EvelynHugoSantuHutsa-ri erantzun: Arrazoi duzu, nik uste. BARKATU. Nire alde, baina, 60ko hamarkadan milioiak irabazten hasi zen negozioetan azeri hutsa zelako. Eta inoiz ez zuen horretarako influentzia lortuko haren talenturik eta edertasunik gabe, eta ez zen hain ederra izango BEKAIN PUSKA HORIEK gabe. Baina, ados, arrazoi, nik uste.

EvelynHugoSantuHutsa-k JuliaSantos@TheSpill-i erantzun: Uf. Barkatu hain zakarra izateagatik. Bazkaldu gabe nengoen. Mea culpa. Kontsolatzen bazaitu, Vivantek istorioa ez du zuk egingo zenukeen bezain ondo egingo, inondik ere. Evelynek zu aukeratu behar zintuen.

JuliaSantos@TheSpill-ek EvelynHugoSantuHutsa-ri erantzun: Bai, ezta????? Nor da, ba, Monique Grant hori? ASPERGARRIA. Ikusiko du…

Azken egunak Evelyn Hugori buruz ahal beste ikertzen eman ditut. Ez naiz inoiz zinemazale amorratua izan, eta are gutxiago interesatu zaizkit antigoaleko Hollywoodeko izarrak. Baina Evelynen bizitza, gaur egun jasota dagoen bertsioa, bederen, hamar kulebroi egiteko adinakoa da.

Lehenik, gaztetako lehen ezkontza, hemezortzi urte zituela dibortzioarekin amaitu zena. Estudio-giroko ezkongai-aldia Hollywoodeko Don Adler handikiarekin, eta harekin ezkontzea gero. Jo egiten zuelako utzi izanaren zurrumurruak. Hugoren itzulera Frantziako *nouvelle vague* film batean. Ezkutuko ezkontza bizkorra Las Vegasen Mick Riva abeslariarekin. Ezkontza glamourrez betea Rex North apainarekin, afera banarekin amaitu zutena. Bere bizitzako amodio-istorio ederra Harry Cameronekin, eta haien alaba Connorren jaiotza. Dibortzio lazgarria eta Max Girard zuzendari zaharrarekin berehalakoan ezkontzea. Ustezko afera bera baino askoz gazteagoko Jack Easton kongresukidearekin, Girardekin zuen harremana amaiarazi zuena. Eta, azkenik, Robert Jamison finantzariarekin ezkondu izana, Evelynek Celia St. James protagonistakide ohia –Roberten arreba– amorrarazi nahiak bultzatuta. Senar guztiak hilik daudenez, Evelyn da harreman horien nondik norakoak ezagutzen dituen bakarra.

Esan gabe doa nahiko lan izango dudala horretatik guztitik zerbait lortzen badut kontatzea.

Arratsaldean bulegoan berandu arte egon ostean, azkenean heldu naiz etxera, nola edo hala, bederatziak baino lehen. Txikia da nire

apartamentua. Uste dut terminorik egokiena sardina-lata ñimiñoa dela, baina txundigarria da zeinen handia eman dezakeen leku txiki batek zure gauzen erdiak falta direnean.

David duela bost aste joan zen etxetik, eta oraindik ez naiz moldatu eraman zituen platerak edo haren amak iaz ezkon-opari eman zigun kafe-mahaia ordezteko. Jesus. Urtebete egitera ere ez ginen heldu.

Sarrerako atea gurutzatu eta poltsa sofan utzitakoan, berriz harritu nau kafe-mahaia berekin eraman izanaren alferrikako zekenkeriak. San Frantziskoko haren apartamentu berria altzariz hornitua zetorren guztiz, postu-igoerarekin batera eskaini zioten birkokatze-pakete eskuzabalari esker. Susmoa dut mahaia biltegi batean gordea duela, behin eta berriz gizalegez berarena zela zioen mesanotxe batekin eta gure sukaldaritza-liburu guztiekin batera. Sukaldaritza-liburuak ez ditut faltan, ez baitut sukaldean egiten, baina gauzetan «Monique eta Davidentzat, urte zoriontsu askotarako» idatzia badago, haien erdia zeuretzat jotzen duzu.

Jaka zintzilikatu dut eta neure buruari galdetu diot, ez estreinakoz, zer galdera inguratzen den gehien egiara: Davidek lan berria onartu zuen eta San Frantziskora ni gabe joan zen? Edo nik egin nion uko New York harengatik uzteari? Zapatak kentzean, beste behin ebatzi dut erantzuna hor nonbait dagoela, erdibidean; baina orduan atzera bueltatu naiz beti beste behin sastakatzen nauen pentsamendura: Benetan joan da.

Pad thai eskatu dut eta dutxan sartu naiz. Ura ia irakiten jarri dut. Ura ia erretzeko bezain bero gustatzen zait. Xanpu-usaina gustuko dut. Niretzat lekurik zoriontsuena dutxaren azpia da beharbada. Hementxe, lurrunetan, xaboi-aparrez estalita, ez naiz sentitzen Monique Grant, atzean utzitako emakumea. Ezta Monique Grant, idazle katigatua ere. Monique Grant naiz, bainurako luxuzko produktuen jabea, ez besterik.

Mahaspasatu eta puska batera, lehortu egin naiz, txandal-galtzak jantzi ditut eta ilea baztertu dut aurpegitik; orduantxe heldu da banatzailea nire atera.

Plastikozko ontzia eskuetan eseri naiz, telebista ikusi nahian. Gogoa zuri jartzen saiatu naiz. Nahi dut burmuinak beste edozer egitea, ez lanaz ez Davidez pentsatzea. Baina jana desagertutakoan, alferrik dela jabetu naiz, eta lanean hasi naiz, beraz.

Beldurgarria da hau guztia, Evelyn Hugo elkarrizketatzeko ideia, haren kontakizuna kontrolatzeko zeregina, hark neurea kontrolatzen ez duela ziurtatzearena. Beti izan naiz gauzak gehiegi prestatzekoa; edo, are gehiago, beti izan naiz ostruka baten antzekoa, aurre egin nahi ez diodan hori saihesteko burua hondarperatzeko beti prest.

Hurrengo hiru egunetan ez dut Evelyn Hugo ikertu besterik egin. Egunak ematen ditut haren ezkontzei eta eskandaluei buruzko artikulu zaharrak eskuratzen. Iluntzeak, haren film zaharrak ikusten.

Carolina Sunset, Anna Karenina, Jane Diamond eta *All for Us* filmetako txataletan ikusi dut Evelyn. Hainbestetan ikusi dut *Boute-entrain*en uretatik ateratzen deneko GIFa, ezen loak hartzen nauenean behin eta berriz agertzen baitzait ametsetan.

Eta harekin maitemintzen hasi naiz, pixka-pixkatxo bat bakarrik, haren filmak ikustean. Gaueko hamaiken eta goizaldeko ordu bien artean, beste guztiak lo daudenean, nire ordenagailu eramangarriak haren irudiekin diz-diz egiten du, eta haren ahotsak nire egongela betetzen du.

Ezin ukatu emakume eder askoa denik. Sarritan hitz egiten dute haren bekain zuzen eta lodiez eta ile horiaz, baina nik ezin diot aurpegiko hezurdurari begirik kendu. Kokots sendoa dauka, eta masailalbo garaiak, eta guzti-guztiak bat egiten du ezpain guztiz mamitsuen puntu batean. Begiak erraldoiak ditu, ez biribilak baina, arbendol handi samar baten formakoak baizik. Haren azal beltzaranduak hondartzako kutsua du ile argiaren ondoan, baina dotorea ere bada. Badakit ez dela naturala hain ile horia hain azal beltzaranarekin, eta hala ere ezin dut burutik kendu sentsazio hori, naturala izan *behar* lukeela, gizakiek eite horrekin jaio beharko luketela.

Zalantzarik ez daukat besteak beste arrazoi horregatik esan zuela behin Charles Redding historialariak Evelynen aurpegiak ematen zuela «ezinbestekoa. Hain fina, hain perfektua ia, ezen hari begiratzean,

iruditzen baitzaizu haren hazpegiak, konbinazio horrekin, proportzio horretan, inoiz sortu beharrekoak zirela lehenago edo beranduago».

Txintxetaz lotzen ditut Evelynen 50eko hamarkadako argazkiak, jertse estuak eta bala-formako bularretakoak soinean zituenekoak; haren eta Don Adlerren argazkiak, Sunset estudioetakoak, ezkonberritakoak; 60ko hamarkada hasierako haren argazkiak, ile luze, zuzen, leuna, kopetako ile-sorta lodia eta galtza motz-motzak.

Badago argazki bat berarena, pieza bakarreko bainujantzia soinean, hondartza birjina bateko ur-ertzean eserita, kapela handi belaxka batek aurpegiaren gehiena estaltzen diola, ile hori zurixka eta aurpegiaren eskuin-aldea eguzkiaren argitan.

Nire gustukoenetako bat 1967ko Urrezko Globoetako zuribeltzezko argazki bat da. Korridorean dago jarrita, ilea motots lasai batean jasoa. Parpailazko soineko argi bat darama, lepo biribil sakonekoa, bularraldea kontrolpean baina bista-bistan eta ezker zangoa gonaren ebaki garaitik ihesi.

Bi gizonezko daude haren ondoan eserita, izenak historian galdutakoak, hari begira agertokira zuzen-zuzen beha. Aldameneko gizona Evelynen bularrari so dago. Haren albokoa, Evelynen izterrari begira. Biek estasian dirudite, apurtxo bat gehiago ikusteko peskizan.

Agian argazkiari buelta gehiegi ematen ari natzaio, baina joera bat hautematen hasia nago: Evelynek beti uzten zaitu apurtxo bat gehiago lortzeko irrikan. Eta beti ukatzen dizu.

Hainbesteko zeresana eman zuen 1977ko *Three A.M.* filmeko sexu-eszena hartan ere, non Don Adlerren gainean bihurrikatzen baita bizkar emandako cowboy-estiloan, haren bularrak osorik hiru segundo baino gutxiago ikus daitezke soilik. Hainbat urtez zurrumurruek zioten filmak leihatilako datu sinestezinak izan zituela, bikoteak hainbat aldiz joaten zirelako ikustera.

Nola daki beragandik zenbat eman eta bere artean zenbat gorde?

Eta hori guztia aldatuko al da orain, esateko zerbait duenean? Edo nirekin jolastuko da ikusleekin hainbeste urtez jolastu zen bezalaxe?

Evelyn Hugok ni atezuan mantentzeko adina kontatuko dit, akaso, baina inoiz benetan ezer ez esateko?

Alarmak jo baino ordu erdi lehenago esnatu naiz. Mezu elektronikoak begiratu ditut, Frankieren bat barne, gaiaren laukian letra larriz oihuka dioena: «EDUKI NAZAZU JAKINAREN GAINEAN». Gosari txikia prestatu dut.

Galtza beltzak eta kamiseta zuria jantzi ditut, eta nire jakarik gustukoena, galburu-erako oihalezkoa. Nire kizkur luze eta itxiak motots batean bildu ditut buruaren goiko aldean. Lentillak ez eta armazoi beltzeko betaurrekorik lodienak hautatu ditut.

Ispiluan begiratzean, konturatu naiz aurpegia argaldu zaidala David joan zenetik. Beti egitura meharra izan dudan arren, ipurdia eta aurpegia ditut pisua hartzen lehenak. Eta Davidekin egotean, elkarrekin ibili ginen bi urteetan eta ezkondu ginenetik aurrerako hamaika hilabeteetan, kilo gutxi batzuk hartu nituen. David jan zalea da. Baina hura goizean goiz esnatu ohi zen jandakoa korrika erretzeko, eta ni, ordea, lo gelditzen nintzen.

Neure buruari begira orain, neure onean eta meheago, konfiantza-bolada bat sentitu dut. Itxura ona daukat. Ondo sentitzen naiz.

Atetik irten aurretik, amak aurtengo Gabonetan emandako kaxmirrezko bufanda hondar kolorekoa hartu dut. Orduan, oin bat bestearen aurrean ipini dut, metrora bidean, Manhattanen barrena eta bizitegi-distriturantz.

Evelynen apartamentua Bosgarren Etorbidean dago, Central Parkera begira. Horrez gain, Malaga ondoan, Espainian, hondartza parean txalet bat daukala jakiteko adina ibili natzaio Interneten zelatan.

Apartamentu hau 60ko hamarkada amaieratik dauka, Harry Cameronekin batera erosi baitzuen. Txaleta oinordetzan jaso zuen, Robert Jamison ia duela bost urte hil zenean. Nire hurrengo bizitzan, gogorarazi, mesedez, zinema-izar gisa filmen irabazien zati bat.

Evelynen eraikina, kareharrizkoa, gerra aurrekoa, *beaux arts* estilokoa, sekulakoa da, kanpotik, bederen. Sartu ere egin aurretik, begi leun eta irribarre atsegineko atezain nagusi lerden batek agurtu nau.

—Zertan lagundu zaitzaket? –galdetu du.

Esateak berak ere lotsa eman dit.

—Evelyn Hugorenera nator. Nire izena Monique Grant da.

Irribarre egin eta atea ireki dit. Garbi dago nire zain zegoela. Igogailuraino lagundu dit, eta azken solairuko botoia sakatu du.

—Egun ona izan, Grant andereñoa –esan du, eta desagertu egin da igogailua ixtean.

Goizeko hamaika-hamaiketan, Evelynen apartamentuko txirrina jo dut. Galtza bakeroak eta blusa urdin iluna daramatzan andrazko batek erantzun du. Berrogeita hamar urte ingurukoa dirudi, agian urteren bat gehiagokoa. Asiar amerikarra da, eta ile liso beltz-beltza mototsean jasoa du. Gutun erdi-ireki sorta bat du eskuan.

Irribarre egin du eta eskua luzatu dit.

—Monique izango zara, noski –esan du, neurea luzatu artean.

Jendea ezagutzen benetan gozatzen duen horietakoa dirudi, eta gogoko dut dagoeneko, nahiz eta promes zorrotza egin diodan neure buruari gaur topatuko dudan guztiarekin neutral jokatzeko.

—Ni Grace naiz.

—Kaixo, Grace –esan dut–. Urte askoan.

—Berdin. Sartu, sartu.

Grace baztertu egin da eta barrura gonbidatzeko keinua egin du. Poltsa lurrean utzi eta jaka kendu dut.

—Hementxe utz dezakezu –esan du, atondoko armairua ireki eta zurezko esekigailu bat emateaz batera.

Jaka-armairua nire apartamentuko komun bakarraren adinakoa da. Ondo jakina da Evelynek Jaungoikoak berak baino diru gehiago daukala, baina badut lana horrek ez nazan kikildu. Ederra da, eta

aberatsa, eta boteretsua, eta sexuala eta liluragarria; eta ni, gizaki arrunt bat. Nola edo hala, neure buruari sinetsarazi behar diot biok maila berean gaudela, bestela honek ez baitu inoiz funtzionatuko.

—Ederki –esan dut irribarrez–. Eskerrik asko.

Jaka esekigailuan jarri dut, barran ezarri dut eta Graceri utzi diot armairua ixten.

—Evelyn goiko solairuan dago, prestatzen. Zerbait ekarriko dizut? Ura, kafea, tea?

—Kafe bat estimatuko nuke –esan dut.

Gracek egongela batera ekarri nau. Argitsua eta egurastua da, lurretik sabairainoko apalategi zuriak ditu, eta bi aulki bigun krema kolorekoak.

—Eseri –esan du–. Nola duzu gustuko?

—Kafea? –galdetu dut, zalantzati–. Esne-gainarekin? Hau da, esnearekin ere ondo, baina esne-gainarekin zoragarri. Edo daukazun edozerekin. –Lasaiarazten saiatu naiz–. Esan nahi dut esne-gain txorrotada bat nahi nukeela, halakorik badaukazue. Sumatzen da urduri nagoela?

Gracek irribarre egin du.

—Pixka bat. Baina ez kezkatu. Evelyn oso atsegina da. Berezia da eta isila; batzuetan kosta egiten da ohitzen, baina jende askorentzat egin dut lan, eta sinetsidazu, Evelyn gainerakoak baino hobea da.

—Ordaindu egin dizu hori esateko? –galdetu dut. Txantxa bat egin nahian nabil, baina nahi nuena baino zorrotzagoa eta salatzaileagoa suertatu da.

Zorionez, Gracek barre egin du.

—Senarra eta biok Londresera eta Parisera bidali gintuen iaz, Gabonetako opari. Beraz, baietz esango nuke, zeharka bada ere.

Jesus.

—Tira, hara hor, ba. Lana uzten duzunean, zure lana nahi dut.

Gracek barre egin du.

—Konforme. Eta oraintxe dator zure kafea, esne-gain txorrotada eta guzti.

Eseri eta telefonoari begiratu diot. Amaren mezu bat daukat, zorte on opaka. Sakatu egin diot, erantzuteko, eta galduta nabil

ondo hitza taxuz idazteko saioan, autozuzentzaileak *hondamendi* idatz ez dezan, eskaileretan oin-hotsak entzun ditudanean. Itzuli egin naiz, hirurogeita hemeretzi urteko Evelyn Hugo niganatzen ikusteko.

Bere edozein iruditan bezain txundigarria da.

Ballet-dantzari baten jarrera du. Galtza beltz elastiko estuak ditu jantzita, eta marra gris eta urdin iluneko jertse bat. Beti bezain argal dago, eta aurpegian zerbait egina duela dakit soilik haren adineko inork ezin duelako itxura hori izan sendagilearen laguntzarik gabe.

Azala distiratsu dauka eta pixkatxo bat gorri, garbitu arte igurtzi berri balute bezala. Betile faltsuak daramatza, edo luzapenak ditu agian. Behinola zorrotzak ziren masailak apur bat hondoratuta daude egun. Baina tanta leun arrosa-kolorea dute oraindik ere, eta ezpainak kolore natural ilunekoak dira.

Ilea sorbaldetatik behera dauka, zuri, gris eta hori sorta ederra, eta kolore argienek haren aurpegia zedarritzen dute. Ziur nago ilean tratamendu hirukoitza egina duela, baina efektua dotoreziaz zahartzen ari den emakume batena da, eta eguzkitan egon dena.

Bekainak, ordea –haren bereizgarri ziren lerro ilun, sendo, zuzenak–, finduak daude urteen poderioz. Eta ilearen kolore berberekoak dira orain.

Niganatu denerako, jabetu naiz ez daramala oinetakorik, baizik eta artilezko galtzerdi handi mozkoteak.

—Kaixo, Monique –esan du Evelynek.

Ustekabean harrapatu nau une batez nire izena esateko informaltasunak eta konfiantzak, urte askoz ezagutuko banindu bezala esan baitu.

—Kaixo –esan dut nik.

—Evelyn nauzu.

Eskua luzatu du, neureari eutsi dio eta astindu egin du. Botere-erakusgarri paregabea iruditu zait bere izena esatea ondo dakienean gelako guztiek, munduko guztiek, badakitela dagoeneko.

Grace heldu da, azpil zuri batean kafe-kikara zuri bat duela.

—Hementxe. Esne-gain pixka-pixka batekin.

—Eskerrik asko, zinez –esan diot, kafea hartzean.

—Horrelaxe gustuko dut nik ere –esan du Evelynek, eta lotsaz onartu dut zirraratu egin nauela. Atsegin eman diodala sentitu dut.

—Beste ezer ekar diezazueket bioi? –galdetu du Gracek.

Ezetz egin dut buruaz, eta Evelynek, erantzunik ez. Joan egin da Grace.

—Zatoz –esan du Evelynek–. Goazen egongelara eta jar gaitezen eroso.

Poltsa hartzean, Evelynek kafea eskutik kendu dit, eta neure ordez eraman du. Behin irakurri nuen karisma «miresmena dakarren xarma» dela, eta ezin dut horretan ez beste ezertan pentsatu, orain nire kafea eskuan duela. Hain emakume boteretsuak hain keinu txikia eta umila egitea liluragarria da, bai horixe.

Gela handi argi batean sartu gara, lurretik sabairainoko leihoak dituena. Ostra gris koloreko aulkiak daude arbel urdin koloreko sofa leun baten parean. Gure oinpeko alfonbra lodia da, boli-kolore distiratsukoa, eta nire begiak haren bideari segika daudela, isats-piano beltzak harritu nau, leihoen argipean zabalik. Hormetan, zuri-beltzezko bi irudi handitu daude.

Sofaren gainekoa Harry Cameron da, film baten platoan.

Tximinia gainekoa, 1959ko *Little Women*en posterra da, Evelynen bertsioarena. Evelynen, Celia St. Jamesen eta beste bi aktoreren aurpegiek osatzen dute irudia. Lau emakume horiek ezin ospetsuagoak izango ziren 50eko hamarkadan, noski, baina Evelynek eta Celiak eutsi diote denboraren erronkari. Orain hari begira, badirudi Evelynek eta Celiak besteek baino distira handiagoa dutela, baina ziur nago atzera begira ari naizelako dela hori. Ikusi nahi dudana ari naiz ikusten, denak zertan amaitu duen badakidanez.

Evelynek nire kikara eta platertxoa kafe-mahai beltz lakatuan utzi du.

—Eseri –esan du peluxezko aulkietako batean jartzeaz batera. Oinak bere azpira bildu ditu–. Nahi duzun lekuan.

Baietz egin dut eta poltsa utzi dut. Sofan esertzean, koadernoa hartu dut.

—Zure soinekoak enkantean salduko dituzu, hortaz –esan dut jarrera egokia hartu bitartean. Boligrafoari sakatu diot, entzuteko gertu.

Hain zuzen, orduan esan du Evelynek:

—Egia esan, gezur bidez deitu dizut gaur hona.

Zuzenean begiratu diot; oker entzungo nuen, noski.

—Barkatu?

Evelynek jarrera egokitu du aulkian, eta begiratu egin dit.

—Soineko gutxi batzuk Christie's-i emateari buruz ez dago asko esaterik.

—Tira, orduan…

—Beste zerbaitez solastatzeko deitu dizut.

—Zertaz, baina?

—Nire bizitzaren kontakizunaz.

—Zure bizitzaren kontakizuna? –esan dut, jo eta ma, dioenari segitzeko eginahaletan.

—Aitorpen bat.

Evelyn Hugoren aitorpen-liburu bat… ez dakit zer izango litzatekeen ere. Urteko istoriorik handiena-edo.

—Aitorpen bat egin nahi duzu *Vivant*ekin?

—Ez –esan du.

—Ez duzu aitorpen-artikulu bat egin nahi?

—Ez dut *Vivant*ekin aitorpen-artikulu bat egin nahi.

—Orduan zertarako nago hemen?

Oraintxe arte nengoena baino are galduago nago.

—Istorioa zuri emango dizut.

Zehazki zer dioen deszifratu nahian begiratu diot.

—Zure bizitzaren kontakizun ofiziala emango duzu, eta nirekin egingo duzu, baina ez *Vivant*ekin?

Baietz egin du buruarekin.

—Ari zara ulertzen.

—Zer proposatzen ari zara, zehazki? –Ez zidan, ba, halako batean, bizirik dagoen pertsonarik interesgarrienetako batek bere bizitzaren istorioa eskainiko, batere *arrazoirik gabe*? Zerbaitek ihes egiten didalakoan nago.

—Nire bizitzaren istorioa kontatuko dizut, bioi mesede egiteko moduan. Tira, egia esan, zuri, gehienbat.

—Zein sakontasunez, baina?

Agian atzera begirako azal bat nahi du? Berak hautatu eta nonbait argitaratutako istorio mami gutxiko bat?

—Goitik behera dena. Ona, txarra eta zatarra. Erabil ezazu «inoiz egin dudan guzti-guztiaz egia osoa esango dizut» esan nahi duen zernahi klixe.

Uau.

Tuntun hutsa sentitzen naiz hona soinekoei buruzko galderak erantzungo zituelakoan etortzeagatik. Koadernoa mahai gainean jarri dut, neure parean, eta leun pausatu dut boligrafoa haren gainean. Hau ezin hobeto kudeatu nahi dut. Txori eder delikatu bat hegaz etorri eta sorbaldan pausatu izan balitzait bezala nago, okerreko mugimendua eginez gero ihes egin balezake bezala.

—Ados, ondo ulertu badizut, esan nahi duzu zure bekatu guztiak aitortu nahi dituzula…

Evelynen jarrera, artean oso erlaxatua eta nahiko axolagabea, aldatu egin da. Nigana makurtzen ari da orain.

—Nik ez dut bekatuak aitortzeari buruzko ezer esan. Ez dut ezertxo ere esan inongo bekaturi buruz.

Atzera egin dut apur bat. Kakaztu dut.

—Barkatu –esan dut–. Gaizki hautatu ditut hitzak.

Evelynek ez du txintik esan.

—Barkatu, Hugo andrea. Surrealista samarra da hau guztia niretzat.

—Evelyn deitu diezadakezu –esan du.

—Ados, Evelyn, zein da hurrengo urratsa? Zer egingo dugu elkarrekin, zehazki?

—Kafe-kikara hartu eta ezpainetarantz altxatu dut, hurrupa ñimiñoa egiteko.

—Ez dugu *Vivant*en azalerako artikulurik egingo –esan du.

—Ados, hainbeste ere ulertu dut –esan dut, kikara uztearekin batera.

—Liburu bat idatziko dugu.

—Guk?

Baietz egin du Evelynek.

—Zuk eta nik –esan du–. Zure lana irakurri dut. Gustuko dut zeinen garbi eta labur komunikatzen duzun. Zure idazkerak badu txorakeria gutxiko zer bat miresgarri zaidana, eta nire libururako apropos-aproposa, nik uste.

—Zure autobiografiaren idazle fantasma izateko eskatzen ari zara?

Hau zoragarria da. Erabat zoragarria, benetan. Hau bai arrazoi ona New Yorken gelditzeko. Arrazoi paregabea. San Frantziskon ez da horrelakorik gertatzen.

Evelynek burua inarrosi du berriz.

—Nire bizitzaren istorioa ematen ari natzaizu, Monique. Egia osoa kontatuko dizut. Eta zuk horri buruzko liburu bat idatziko duzu.

—Eta zure izena jarriko diogu, eta denei esango diegu zuk idatzi duzula. Hori da idazle fantasma izatea.

Berriz hartu dut kikara.

—Ez du nire izenik izango. Hilda egongo naiz eta.

Kafea kontrako eztarritik joan zait eta, horrekin batera, alfonbra zuria izpi okrez zikindu dut.

—Ai ene –esan dut, agian ozenegi, kikara utzita–. Kafea bota dizut alfonbran.

Eskuaz garrantzia kendu dio Evelynek, baina Gracek atea jo, atea zirt-ireki, eta burua sartu du.

—Dena ondo?

—Erori egin zait, tamalez –erantzun dut nik.

Gracek atea zabal-zabal utzi du, sartu egin da eta ikusi bat eman du.

—Barkatu, benetan. Apur bat izutu naiz, besterik ez.

Evelynen begirasuna ikusi dut begi-zeharka, eta oso ondo ezagutzen ez dudan arren, badakit isilik egoteko esaten ari zaidala.

—Egon lasai –esan du Gracek–. Konponduko dut nik.

—Gose zara, Monique? –esan du Evelynek, zutitzean.

—Barkatu?

—Ezagutzen dut hemen entsalada apartak egiten dituen leku bat. Nire kontu.

Ia eguerdia da, eta arduratuta nagoenean apetitua izaten dut desagertzen lehena, baina baietz esan dut hala ere, zeharo iruditu baitzait egiaz ez dela galdera bat.

—Ederki –esan du Evelynek–. Grace, deituko al duzu aurretik Trambino's-era?

Evelynek sorbaldatik heldu dit, eta hamar minutu joan baino lehen, Upper East Sideko espaloi atonduetan barrena gabiltza.

Harritu egin nau airearen hotz zorrotzak, eta Evelyn jaka gerri finaren bueltan tinko eusten ari dela jabetu naiz.

Eguzkiaren argitan errazago ikusten dira adinaren arrastoak. Begi-zuringoak lausotuak ditu, eta eskuetako larruazala zeharrargia bilakatzeko bidean du. Haren zainen ukitu urdinak amona ekarri dit gogora. Oso gogoko nuen haren azalaren samurtasuna, nola ez zen bere onera itzultzen mugitzen zenean.

—Evelyn, zergatik diozu hilda egongo zarela?

Barre egin du Evelynek.

—Esan nahi dut liburua autobiografia baimendu gisa argitara dezazun nahi dudala, zure izen eta guzti, ni hildakoan.

—Ados –esan dut, halakorik esatea erabat normala balitz bezala. Eta orduan konturatu naiz ezetz, zoramena dela–. Ez dut trauskila izan nahi, baina hiltzen ari zarela esan nahi duzu?

—Denok ari gara hiltzen, laztana. Zu zeu hiltzen ari zara. Ni hiltzen ari naiz, hiltzen ari da tipo hori ere.

Txakur beltz ile-harro bat paseatzen ari den adin ertaineko gizon bat seinalatu du hatzaz. Entzun egin dio, Evelynen hatza ikusi du bera seinalatzen, eta nor den konturatu da. Hiru bider begiratu behar izan dio, harriduraren harriduraz.

Jatetxera egin dugu, ateko bi mailetan behera jaitsita. Evelyn atzeko mahai batean eseri da. Ez dio inolako zerbitzarik lagundu. Badaki nora joan, eta kito, eta gainerakoak moldatuko direla pentsatzen du. Zerbitzari bat etorri zaigu mahaira, galtza beltzak, alkandora

zuria eta gorbata beltza soinean, eta bi baso ur utzi dizkigu. Evelynenak ez du izotzik.

—Eskerrik asko, Troy –esan du Evelynek.

—Entsalada askotarikoa? –galdetu du.

—Tira, niretzat bai, noski, baina lagunarentzat, ez dakit –esan du Evelynek.

Eskuzapia mahaitik kendu eta magalean jarri dut.

—Entsalada askotarikoa ere ederki, eskerrik asko.

Troyk irribarre egin, eta alde egin du.

—Gustatuko zaizu entsalada askotarikoa –esan dit Evelynek, ohiko berriketan dabiltzan adiskideak izango bagina bezala.

—Ados –esan dut nik, elkarrizketaren noranzkoa berreskuratu nahian–. Kontadazu gauza gehiago idatzi behar dugun liburu horretaz.

—Jakin beharreko guztia esan dizut jada.

—Esan didazu nik idatziko dudala eta zu hil egingo zarela.

—Hitzak hobeto hautatu beharko zenituzke.

Ur handi samarretan sentitzen naiz, agian, eta beharbada ez nago bizitzan egon nahi dudan lekuan, zehazki, baina badakit zertxobait hitzak hautatzeaz.

—Gaizki ulertuko nizun. Zin egiten dizut hitzak kontu handiz aukeratzen ditudala.

Sorbaldak jaso ditu Evelynek. Elkarrizketa honetan berak ez du askorik jokoan.

—Gaztea zara, eta zure belaunaldi osoa axolagabea da esanahi handiko hitzekin.

—Ondo da.

—Eta ez dut esan *bekatu*rik aitortuko dudanik. Kontatzeko daukadana bekatua dela esatea engainagarria eta mingarria da. Egin ditudan gauzez ez dut damurik (ez espero ditzakezun horiez, behintzat), egun argiz ikusita, gogorrak edo nazkagarriak badirudite ere.

—*Je ne regrette rien* –bota dut, ur-basokada altxatu eta apur bat hurrupatuz gero.

—Hori da eta –esan du Evelynek–. Dena den, kantu hori gehiago ari da iraganean bizi ez zarelako ez damutzeaz. Esan nahi dudana da

erabaki horietako asko gaur ere berdin hartuko nituzkeela. Garbi esango dut: gauza batzuekin damutzen naiz. Baina… ez gauza lohiez, egia esan. Ez dut damu esandako gezurretako asko edo mindutakoak mindu izana. Ez nau asaldatzen batzuetan gauzak ondo egitea zikina izateak. Eta, gainera, erruki naiz neure buruaz. Fidatzen naiz neure buruaz. Begira, esate baterako, lehen zakar hitz egin dizudanean, apartamentuan, nire bekatuak aitortzearena esan duzunean. Ez da polita izan, eta ez dakit merezi ote zenuen. Ez naiz damutzen, ordea. Izan ere, jakin badakit banituela hainbat arrazoi, eta ahalik onena egin dut horretara eraman nauten pentsamendu eta sentimendu guztiekin.

—*Bekatu* hitzak sumintzen zaitu nahigabea sentitzen duzula esan nahi duelako.

Gure entsaladak agertu dira, eta zipitzik ere esan gabe piperbeltza birrindu du Troyk Evelynenean, harik eta Evelynek eskua altxatu eta irribarre egin duen arte. Ezetz egin diot nik.

—Baliteke zerbaitek nahigabea eragin arren hartaz ez damutzea –esan du Evelynek.

—Noski –esan diot nik–. Bai, horixe. Espero dut zalantzaren onura emango didazula, aurrera begira ere, horretan bat gatozelakoan, mintzagai duguna zehazki interpretatzeko hainbat era badaude ere.

Evelynek sardexka hartu du, baina ez du harekin ezer egin.

—Oso garrantzitsua iruditzen zait nire ondarea eskuetan hartuko duen kazetari batekin zehatz-mehatz esan asmo dudana esatea, eta esandakoa asmo osoz esatea –esan du Evelynek–. Nire bizitzaren berri eman behar badizut, benetan jazo zena esango badizut, nire ezkontza guztien atzeko egia, zer film egin ditudan, nor maite izan dudan, norekin oheratu naizen, nor mindu dudan, nola jarri dudan neure burua arriskuan, eta horrek guztiak nora eraman nauen, ulertzen nauzula jakin behar dut. Jakin behar dut esan nahi dizudan horri zehazki entzungo diozula eta ez duzula zure aierurik nire istorioan sartuko.

Oker nengoen. Evelynek hemen ez dauka galtzeko gutxi. Garrantzi handiko gauzez ere axolagabe hitz egin dezake Evelynek, baina, oraintxe, une honetan, hain argudio espezifikoetara heltzeko

hain luze hartzen ari dela, konturatzen ari naiz hau guztia erreala dela. Gertatzen ari da. Benetan dauka bere bizitzaren istorioa kontatzeko asmoa, ezbairik gabe bere ibilbidearen eta ezkontzen eta bere irudiaren egia latzak jasoko dituen istorioa. Izugarri egoera zaurgarrian jartzen ari da. Botere aparta ematen ari zait. Ez dakit zergatik ari zaidan niri ematen, baina horrek ez du niri ematen ari zaidanik aldatzen. Eta, oraintxe bertan, nire zeregina da Evelyni erakustea merezi dudala eta botere hori sakratua balitz bezala tratatuko dudala.

Sardexka mahaian utzi dut.

—Zentzu handia du, eta barkatu azalekoa izan banaiz.

Evelynek garrantzia kendu dio.

—Kultura osoa da azalekoa gaur egun. Hori da azken moda.

—Inporta al dizu beste galdera batzuk egitea? Behin tamaina hartzen diodanean, zin egiten dizut esaten ari zaren horretan eta esan nahi duzun horretan bakarrik jardungo naizela, hain senti zaitezen ulertua, ez baitzaizu beste inor hoberik bururatuko ni baino zure sekretuen zaindari izateko.

Nire zintzotasunak armagabetu egin du une labur batez.

—Bota, ba –esan du, eta entsalada-mokadu bat hartu du.

—Liburu hau zu hil ondoren argitaratu behar badut, zer etekin irudikatu duzu dirutan?

—Zuretzat edo niretzat?

—Zuretzat, hasteko.

—Niretzat batere ez. Gogoan izan: hilda egongo naiz.

—Esan duzu hori, bai.

—Hurrengo galdera.

Harengana hurbildu naiz, konspiratzeko bezala.

—Gorroto dut honelako arrunkeriak aipatzea, baina zer-nolako epeak dituzu buruan? Liburu hau hainbat urtez gorde beharko dut harik eta zu…

—Hil arte?

—Ba… bai –esan dut nik.

—Hurrengo galdera.

—Zer?

—Hurrengo galdera, mesedez.

—Aurrekoa ez didazu erantzun.

Evelyn isilik dago.

—Tira, ba, nolako etekina dago niretzat dirutan?

—Askoz galdera interesgarriagoa. Banengoen ba, ni, luze jotzen ari zela ateratzea.

—Tira, galdetu dut.

—Gu biok behar beste egunez bilduko gara, eta nik guzti-guztia kontatuko dizut. Orduan amaituko da gure harremana, eta libre izango zara (edo agian behartuta egongo zara, hobeto esanda) liburua idazteko eta eskaintzarik onena egiten dizunari saltzeko. Eta onenari esan nahi dut. Negoziazioan gupidarik ez, Monique. Ordain diezazutela gizon zuri bati ordainduko lioketena. Eta, orduan, hori egindakoan, azken sosa ere zuretzat izango da.

—Niretzat? –esan dut, zur eta lur.

—Ur pixka bat edan beharko zenuke. Konortea galtzear dirudizu.

—Evelyn, zure bizitzaren biografia batek, zure zazpi ezkontzez hitz egiten duen batek…

—Bai?

—Horrelako liburu batek milioika dolarreko irabaziak izango ditu, negoziatuko ez banu ere.

—Baina negoziatuko duzu –esan du Evelynek, eta hurrup egin zion bere urari, itxuraz kontent.

Hau galdetu beharra dago. Luzaroegi ibili gatzaizkio inguruan dantzan.

—Zer arraiogatik egingo zenuke nigatik halakorik?

Baietz egin du buruaz. Galdera honen zain zegoen.

—Oraingoz, pentsa opari bat dela.

—Baina, zergatik?

—Hurrengo galdera.

—Benetan.

—Benetan, Monique, hurrengo galdera.

Boli koloreko mahai-zapian erori zait sardexka ustekabean. Entsaladaren olioa oihalean zabaltzen ari da, eta hura ilunago eta

zeharrargiago bilakatzen. Entsalada bikaina da baina tipula gehiegitxokoa, eta nire arnasaren beroa sumatzen dut inguruko espazioa blaitzen. Zer demontre ari da gertatzen?

—Ez dut esker txarrekoa eman nahi, baina uste dut merezi dudala jakitea inoizko aktorerik ospetsuenetako batek zergatik erauzi nauen iluntasunetik bere biografoa izan nadin eta zergatik eman didan bere istoriotik milioika dolar irabazteko aukera.

—*Huffington Post*ek dio nire autobiografia hamabi milioi dolarren truke ere saldu nezakeela.

—Jainko maitea.

—Jakin-nahi handiko buruek jakin nahi dute, antza.

Evelyn honekin dibertitzen ari den erak, ni txunditzeak antza denez gozarazten duen moduak, ulertarazten dit hau, hein batean bada ere, botere-dema dela. Besteei bizitza aldatuko lieketen gauzekin harroa izatea gustuko du. Ez al da horixe boterearen definizioa: jendea bere buruaz beste egiten ikustea zuretzat ezertxo ere ez den zerbaitegatik?

—Hamabi milioi asko da, ez niri gaizki ulertu… –esan du, eta ez du esaldia bukatu, nik neure gogoan amai dezadan: «Baina niretzat ez da asko».

—Baina, hala ere, Evelyn, zergatik? Zergatik, ni?

Evelynek begirada nigana altxatu du, begitarte estoikoz.

—Hurrengo galdera.

—Errespetu osoz, ez da bidezkoa.

—Ederki asko aberasteko eta bat-batean zure lanbidearen gorenera igotzeko aukera eskaintzen ari naiz. Ez dut zertan bidezkoa izan. Ez, bederen, bidezkotasuna horrela definitu behar baduzu.

Batetik, egia da erraza baino errazagoa dirudiela. Baina, bestetik, Evelynek ez dit ezer zehatzik eman. Eta lana galdu nezake honelako istorio bat neuretzat lapurtuz gero. Lanpostu hori da oraintxe daukadan bakarra.

—Hartu al dezaket denbora apur bat honetaz pentsatzeko?

—Zertaz pentsatzeko?

—Honetaz guztiaz.

Begiak txitxildu ditu pittin bat.

—Zer arraio daukazu pentsatzeko?

—Barkatu mintzen bazaitut –esan dut.

Evelynek moztu egin dit.

—Ez nauzu mindu.

Ernegatu ahalko nukeela iradokitzeak berak ernegatu du.

—Asko dago kontuan hartzeko –esan dut. Kaleratu egin nazakete. Atzera egin lezake berak. Sekulako hanka sartzea izan liteke liburu hau idaztea.

Aurrerantz makurtu da Evelyn, niri entzun nahian.

—Esaterako?

—Esaterako, nola kudeatu behar dut nik hau *Vivant*ekin? Zurekin esklusiba bat daukadala uste dute. Une honetantxe argazkilariei deika ari dira.

—Esan nion Tomas Welchi zipitzik ez agintzeko. Haien kabuz zentzugabeko suposizioak egin badituzte, haientzat kalte.

Baina niretzat ere bai. Izan ere, orain badakit ez duzula haiekin aurrera egiteko batere asmorik.

—Eta?

—Zer egingo dut nik orain? Bulegora itzuli eta nagusiari esan ez duzula *Vivant*ekin hitz egingo eta guk biok liburu bat salduko dugula? Haien bizkarretik aritu naizela emango du, lanorduetan, gainera, eta haien istorioa neuretzat ostu dudala.

—Ez da nire arazoa, egia esan –esan du Evelynek.

—Baina horrexegatik pentsatu behar dut horretan, nire arazoa delako.

Evelynek ulertu egin nau. Serio hartu nauela sumatu dut, urez betetako edalontzia utzi eta zuzenean niri begiratzeko moduagatik, besaurreak mahai gainean jarrita nigana makurtu baita.

—Bizitzan behin bakarrik suertatzen den aukera horietako bat daukazu hemen, Monique. Ohartzen zara, ezta?

—Jakina.

—Beraz, zeure onbeharrez, ikasi bizitzari potroetatik heltzen, laztana. Ez kezkatu hainbeste zuzen jokatzeagatik, garbi baino garbiago dagoenean zein den aukerarik zentzuzkoena.

—Ez duzu uste nagusiekin kontu honetan zintzo jokatu behar dudanik? Haiei ziria sartzeko azpijokotan ibili naizela pentsatuko dute.

Evelynek ezezkotan astindu du burua.

—Nire taldeak bereziki zu eskatu zintuenean, zure enpresak maila altuagoko baten batekin erantzun zigun bueltan. Zu ez beste inor izango ez zela garbi utzi arte, ez zuten zu bidaltzea onartu. Badakizu zergatik egin zuten hori?

—Ez dutelako uste ni…

—Negoziotan dabiltzalako. Baita zu ere. Eta, oraintxe bertan, zure negozioak zeruraino heltzeko aukera du. Hautu bat egin beharra duzu. Elkarrekin liburua idatziko dugu, bai ala ez? Jakin beharko zenuke zuk idazten ez baduzu ez diodala beste inori emango. Hala bada, neurekin hilko da.

—Zergatik zure bizitzaren istorioa niri bakarrik kontatu? Ezagutu ere ez nauzu egiten. Ez du zentzurik.

—Ez daukat zuretzat zentzurik izateko inolako betebeharrik.

—Zeren bila zabiltza, Evelyn?

—Galdera gehiegi egiten duzu.

—Zu elkarrizketatzeko nago hemen.

—Hala ere. –Hurrup egin dio urari, irentsi, eta begietara begiratu dit zuzen-zuzenean–. Bukatzen dugunerako ez zaizu galderarik geldituko –esan du–. Jakiteko irrika bizian zauden gauza horiei guztiei amaitu aurretik erantzungo diet, hitza ematen dizut, baina ez ditut erantzungo nahi dudana baino minutu bat lehenago ere. Nik agintzen dut hemen. Horrelaxe izango da kontua.

Entzuten ari natzaio, horretan pentsatu bitartean, eta konturatu naiz astaputz galanta izango nintzatekeela ezetz esango banio, haren baldintzak gorabehera. Ez nintzen New Yorken gelditu David San Frantziskora joan zedin utzita Askatasunaren Estatua gogoko dudalako, baizik eta ahal bezain gora heldu nahi dudalako. Nire izena, aitak emandako izena, letra handi-beltzetan nahi dudalako noizbait. Honatx nire aukera.

—Ados –esan dut.

—Ados, ba. Pozten naiz hori entzuteaz. –Erlaxatu egin dira Evelynen sorbaldak, berriz hartu du ura eta irribarre egin du–. Monique, gustuko zaitudala uste dut –esan du, orduan.

Arnasa sakon hartu dut, eta oraintxe konturatu naiz zeinen azalekoa izan den orain arte.

—Eskerrik asko, Evelyn. Esanahi handia du niretzat.